

7 Literatura

GURE JAIZKIBEL



"GURE JAIZKIBEL"

I PUTREKABIYA-AZPIYA

Burkaitzaren gainetik
zapelatza agertu da
hegalak zabal-zabal
eta begiak dizdizka;
tupustean,
tximistak bezala
ortzi-lurrak urratuz,
ainardiko erbinudeari
bihotza lehertu dio.

II SANTABARBARA

Ilargi betearen irudira
lerrotutako harrespil zaharra
ahantzuraren eremuetan datza;
arbasoen errautsen artetik,
ordea,
indarrean dator bizia,
urki zuri gaztea.

III ARTOLA

Harpeko artzain-bordatik
otsoa ihesi doa
bee ilunen artean,
herio-dantza zoroan
odol beroz
horditu ostean,
otadiko
geriza ezkutura.

IV TALAIA

Lur urrunetatik
kulunka heldu da untzia,
ur azpiko amildegiak oro
gibelean utzita.

V
ABANZADAKO-GAÑA

Antzinako borrokaldien
oihartzuna ahituta,
haize-boladen pean dago
dorrei garaitezina,
horma belztuez
eutsi ezinik
denbora-gurpilaren
ibili etengabeari.

VI
LORBIDE

Azken itzainaren
orga dantzut
oihanean,
zurezko gurpilen
ardatza auhenka,
arima herratu
baten antzera.

VII
BASOTXIKI

Ekaitz ahantziak
bortizki zehatutako
itsasuntzia
arroken artean datza
egun eta betiko,
eremu urdineko
uhin irristakorren
minez.

LANDER ZURUTUZA